

Historiaurreko irakurgaiak, ALVARO ARRIZABALAGAK gomendatuak

GUILLERMO ROA ZUBIA
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa



Alvaro Arrizabalaga arkeologoa da. Aranzadi Elkarteko kide da, eta historiaurrea irakasten du Euskal Herriko Unibertsitatean. Zientziako liburu batzuk gomendatzeko eskatu diogu; edozeinentzat interesgarriak izan daitezkeen liburuak.

Dibulgaziotik hasi da. Atapuercako aztarnategian indusketa egiten duten paleontologoek idatzitako bi liburu ospetsu gomendatu dizkigu: *La especie elegida* eta *El collar del neanderthal*. Lehenengoan, Juan Luis Arsuagak eta Ignacio Martínezek hominidoen eboluzioa aurkezten digute, gizakia 'aukeratutako' espezieztat har daitekeen ala ez aztertzeke helburuarekin. Bigarrenengan, Arsuagak Neanderthalgo gizakiak aztertzen ditu, eta saiatzzen da argitzen zenbaterainoko abstrakzio-ahalmena zuten. "Arsuaga bereziki trebea da zabalkunde zientifikoan" dio Arrizabalagak.

Oraindik dibulgazioaren arloan, Stephen Jay Gould biologoaren liburu bat gomendatu digu: *Bully for Brontosaurus* (gaztelaniazko argitalpenean, *Brontosaurus y la nalga del ministro*). Goulden saiakera-bilduma bat da; idazleak istorio harrigarriak kontatzen dizkigu, zientziaren eta beste arloen arteko harremana gai gisa hartuta. Izenburuak txantxetakoak dirudi, baina Arrizabalagak dioenez, "gezurra ematen badu ere, oso liburu serioa da".

Ohiko zientzia-dibulgazioaren esparrutik kanpo bi liburu ere gomendatu dizkigu. Fikziozko liburuak dira, baina neurri batean zientzian oinarrituta daudenez, dibulgazio-liburuak ere badira.

Lehenengoa *The Clan of the Cave Bear* da (gaztelaniazko argitalpenean, *El clan del oso cavernario*). Jean M. Auel idazle estatubatuarren liburu ezaguna da. Bost urteko neska Cro-magnon baten istorioa da, Ayla. Familia lurrikara batek hilda, Ayla bakarrik dago munduan. Istorio horren haritik, Cro-magnon eta Neanderthalgo gizakiak lurralde berean bizi izan zireneko garaia deskribatzen du idazleak.

Azken gomendioa *La guerre du feu* da (gaztelaniazko bertsioan, *En busca del fuego*). Joseph eta Seraphin Boex anaia belgikarrek XIX. mendean idatzitako eleberria da (J. H. Rosny ezizenarekin sinatua). 1981ean, Jean Jaques Anaud frantziarrak film bat egin zuen eleberrian oinarrituta; filmak eleberriak baino oihartzun handiagoa izan zuen. Ulhamr tribuaren istorioa da; tribuak sua erabiltzen du, baina ez dakite nola piztu. Beraz, gorde egiten dute itzali gabe. Baina beste tribu baten aurkako liskar batean galdu egin dute sua. Hiru laguneko espedizio bat bidaltzen dute suaren bila. ●

i

La especie elegida

Juan Luis Arsuaga/Ignacio Martínez
Temas de Hoy
180x113 mm.
978-84-7808-566-8

El collar del neanderthal

Juan Luis Arsuaga
Temas de Hoy
230x145 mm.
978-84-7880-793-2

Brontosaurus y la nalga del ministro

Stephen J. Gould
Crítica
190x125 mm.
978-84-7423-818-1
Jatorrizko izenburua:
Bully for Brontosaurus

El clan del oso cavernario

Jean M. Auel
Maeva ediciones
240x170 mm.
978-84-9535-460-0
Jatorrizko izenburua:
The Clan of the Cave Bear

En busca del fuego

J. H. Rosny (izengoitia)
Valdemar
170x110 mm.
978-84-7702-357-9
Jatorrizko izenburua:
La guerre de feu